KULTURA SAILA

5842

AGINDUA, 2008ko irailaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, Ukan Sariaren 2008ko deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan ezartzen denez, Kultura Sailaren zeregina da, besteak beste, hizkuntza-politika eta euskararen sustapena. Horren haritik, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 16. artikuluak bere 2.b) puntuan honako zeregin hau jartzen dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari: euskarak edozein gizarte-arlotan duen erabileraz edo bizi duen egoeraz gizartea sentiberatzeko kanpainak edo neurriak garatzea eta koordinatzea.

Horren haritik, besteak beste, Kultura sailburuak Ukan Saria sortu eta arautu zuen 2007ko urriaren 31ko Aginduaren bidez (EHAA, azaroaren 20koa, 223. zk.). Aipatutako Sariaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskararen sustapenaren, zabalkundearen eta normalizazioaren alde aparteko lana burutu duten edo eta burutzen ari diren pertsona fisiko edo juridikoei bere eskerrona eta aitorpen publikoa eman nahi die.

Azaldutako horren ondorioz eta otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak Kultura Sailari aitortutako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Agindu honen xedea.

Agindu honen xedea Ukan Sariaren 2008ko deialdia egitea da.

2. artikulua.– Ukan Sariaren xedea.

Ukan Sariak xede bakarra du: Euskararen sustapenaren, zabalkundearen eta normalizazioaren alde aparteko lana burutu duten edo/eta burutzen ari diren pertsona fisiko edo juridikoei jendaurreko aitorpena egitea eta, aldi berean, gizarteko gainerakoak lan horretan parte hartzera bultzatzeko bide izan daitezkeen merezimenduzko jardun horiek agerian jartzea.

3. artikulua.– Sariaren izaera.

1.– Ukan Saria oso-osoan ohorezkoa da, eta ez du administrazio edo ekonomia mailako eskubiderik sortuko.

2.– Ukan Sariaren jasotzaileak berariazko agiria jasoko du.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5842

ORDEN de 30 de septiembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca la edición correspondiente a 2008 del Premio Ukan.

El Decreto 8/2005 de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas a la política lingüística y la promoción del euskera. Al hilo de lo anterior, el artículo 16.2.b) del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, asigna la siguiente función a la Dirección de Promoción del euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística: el desarrollo y coordinación de campañas o medidas dirigidas a la sensibilización social relativas al uso o situación del euskera en cualquier ámbito social.

En tal sentido, el Departamento de Cultura creó y reguló el premio Ukan mediante la Orden de 31 de octubre de 2007 con el fin de reconocer públicamente a las personas jurídicas o físicas que desarrollen o hayan desarrollado un trabajo excepcional en favor de la normalización, difusión y fomento del euskera, y al mismo tiempo, dar cuenta de dichas acciones meritorias para que puedan motivar al resto de la sociedad a participar de tales trabajos.

En vista de todo lo anterior y en uso de las competencias que el Decreto 25/2006 otorga al Departamento de Cultura,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto de la Orden.

Es objeto de la presente Orden convocar la edición correspondiente a 2008 del premio Ukan.

Artículo 2.– Objeto del premio Ukan.

El premio Ukan tiene un único objeto: reconocer públicamente a las personas jurídicas o físicas que desarrollen o hayan desarrollado un trabajo excepcional en favor de la normalización, difusión y fomento del euskera, y al mismo tiempo, dar cuenta de dichas acciones meritorias para que puedan motivar al resto de la sociedad a participar de tales trabajos.

Artículo 3.– Naturaleza del premio.

1.– El premio Ukan es en su totalidad honorífico, y no reportará beneficios ni económicos ni administrativos.

2.– La persona merecedora del premio Ukan recibirá un diploma acreditativo.

4. artikulua.– Hautagaiak.

Euskararen sustapenaren, zabalkundearen eta normalizazioaren alde aparteko lana burutu duten edo eta burutzen ari diren pertsona fisiko edo juridikoak dira Ukan Sariaren hautagai.

5. artikulua.– Sariaren kudeaketa.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskara Sustatzeko zuzendariari dagokio Ukan Sariaren kudeaketa-lanak egitea.

6. artikulua.– Epaimahaia.

1.– Ukan Saria nori eman erabakitzeko epaimahai bat egongo da.

2.– Epaimahai horretako kideak honako hauek izango dira:

a) Epaimahaiburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.

c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

d) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

e) Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

f) HABEko zuzendari nagusia edo, edo berak izendatutako ordezkoa.

g) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio- eta Informazio-arduraduna edo, bera ordezkatuz, zerbitzu horri atxikitako beste pertsona bat, hizpidez baina hautespiderik gabe, idazkari lanetan jardungo duena.

3.– Balorazio-batzordearen osaeraren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen Ebazpen baten bitartez.

4.– Epaimahaiko kideek abstenitu egin beharko dute eta errefusatu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

7. artikulua.– Hautaketa-bidea.

1.– Sarituaren hautaketa, hartarako izendatutako epaimahaiak eginkizun horretarako antolatutako lanbileretan egindako botazio zuzenez burutuko da.

2.– Epaimahaiak gehiengo soilaz erabakiko du Ukan Saria nori eman, eta quoruma izateko epaimahaikide erdiek gehi batek egon beharko dute. Hainbanaketa gertatuz gero epaimahaiburuak erabakiko du kalitatezko botoz.

Artículo 4.– Candidatos.

Son candidatas al premio Ukan las personas físicas o jurídicas que desarrollen o hayan desarrollado un trabajo especial en favor de la normalización, difusión y fomento del euskera.

Artículo 5.– Gestión del premio.

La gestión del premio Ukan corresponde al director de Promoción del Euskera del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 6.– El jurado.

1.– Se contará con un jurado para decidir a quién corresponde el premio Ukan.

2.– Serán miembros del jurado las personas siguientes:

a) Presidente del jurado, el Viceconsejero de Política Lingüística.

b) El Director de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística.

c) El Director de Coordinación de la Viceconsejería de Política Lingüística o persona sustituta nombrada por él.

d) El Director de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de la Viceconsejería de Política Lingüística o persona sustituta nombrada por él.

e) El Directo de Servicios del Departamento de Cultura o persona sustituta nombrada por él.

f) El Director General de HABE o persona sustituta nombrada por él.

g) El responsable de Documentación e Información de la Dirección de Promoción del Euskera o, en su defecto, otra persona adscrita a ese servicio: actuará como secretario, con voz pero sin voto.

3.– La formación de la Comisión de Valoración se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante una Resolución del Viceconsejero de Política Lingüística.

4.– Según los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, los miembros del jurado deberán abstenerse y podrán sen recusados.

Artículo 7.– Modo de elección.

1.– La elección de la persona premiada se llevará a cabo mediante votación directa en cuantas reuniones de trabajo sean organizadas por el jurado designado a tal efecto.

2.– El jurado decidirá por mayoría simple a quien conceder el premio Ukan. Para poder llevar a cabo la votación se requerirá la presencia de la mitad más uno de los miembros del jurado. En caso de empate decidirá el presidente del jurado con su voto de calidad.

3.– Epaimahaiak beharrezkotzat jotzen badu, dei egin ahal izango dio egokitzat jotzen duenari informazio osagarria lortzeko.

4.– Hautaketa egin ostean, epaimahaiak aukeratutako pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta epaia arrazoituko duen irizpena aurkeztuko dizkio Kultura sailburuari. Era berean, horrela iritziz gero, aipatutako irizpenaz gain, arrazoitutako nahi beste aipamen berezi aurkeztu ahal izango dizkio Kultura sailburuari.

8. artikulua.– Hautaketa-irizpideak.

Saridun nor gertatuko den jakiteko, epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Nork bere alorreko jardueretan luzaroan parte hartu izana.

b) Euskararen normalizazioaren esparruan egindako lanaren garrantzia.

c) Saritutako pertsona fisikoak edo juridikoak egindako jarduerak edo ibilbideak gizartean izan duen oihartzuna eta eragina.

9. artikulua.– Erabakia.

1.– Epaimahaiaren proposamena ikusirik, Kultura sailburuak dagokion erabakia hartuko du.

2.– Erabakia hartu aurretik, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak saritzea proposatu den pertsona fisiko edo juridikoarengana joko du idatziz onespen eske eta, ondorioz, saritu nahi den pertsonak, saria onartzekotan, saria onartu egiten duela adieraziko dio esandako Zuzendaritzari, hartarako jasoko duen berariazko idazki baten bidez. Idazki berean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten menpe ez dagoela eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide zigortuta ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du saritzea proposatzen den pertsonak.

3.– Erabakia agindu hau indarrean jarri eta 2008ko urtea bukatu aurretik emango da. Adierazitako epean Ebazpen zehatzik emango ez balitz, saririk ez dela emango ulertuko da.

4.– Aurrekoari kalterik egin gabe, erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da herritar orok jakin dezan.

10. artikulua.– Sari-banaketa.

Ukan Saria ageriko ekitaldi batean emango da.

11. artikulua.– Publizitate-erabilera.

Saritutako pertsona fisikoa edo juridikoak jasotako sariaren aipamena egin ahal izango du Publizitatea egiteko ere erabil dezake aipamen hori.

3.– Si el jurado lo considera necesario, podrá convocar a quien estime oportuno con la finalidad de recabar información adicional.

4.– Una vez hecha la elección, el jurado presentará a la Consejera de Cultura la identidad de la persona elegida, así como la justificación de la elección. Asimismo, siempre y cuando lo considere necesario, podrá presentar a la Consejera de Cultura, junto con dicha justificación, cuantas menciones especiales debidamente razonadas considere oportunas.

Artículo 8.– Criterios de elección.

El jurado tomará en consideración los siguientes criterios para decidir quién será la persona física o jurídica premiada:

a) Dilatada experiencia en actividades de su ámbito.

b) Relevancia de la actividad llevada a cabo en el ámbito de la normalización lingüística.

c) Impacto y eco social de la actividad o trayectoria de la persona física o jurídica premiada.

Artículo 9.– Resolución.

1.– Una vez vista la propuesta del jurado, la Consejera de Cultura adoptará la correspondiente resolución.

2.– Antes de adoptar dicha resolución, la Dirección de Promoción del Euskera se dirigirá por escrito a la persona física o jurídica propuesta al objeto de recabar su aceptación. En consecuencia, la persona a quien se quiere premiar, en caso de aceptar el premio, comunicará por escrito a la Dirección de Promoción del Euskera su aceptación, utilizando para ello un documento específico que le será facilitado. En tal escrito la entidad beneficiaria tendrá que acreditar mediante declaración jurada que no se encuentra incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para la obtención de subvenciones o ayudas y que no ha sido sancionada por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– La resolución se adoptará en el plazo comprendido entre la entrada en vigor de la presente Orden y el final de 2008. Si en el plazo establecido no se adoptara resolución alguna, se entenderá que el premio queda desierto.

4.– Sin perjuicio de lo anterior, dicha resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco para conocimiento general.

Artículo 10.– Entrega del Premio.

La entrega del premio Ukan se llevará a cabo en un acto público.

Artículo 11.– Uso publicitario.

La persona física o jurídica premiada podrá hacer mención del premio recibido. Esta mención también podrá ser empleada con fines publicitarios.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Bigarrena.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kultura sailburuari hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 30a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– De surgir en esta Orden algún problema de interpretación entre los textos en euskera y castellano, se adoptará el texto en euskera como guía para solucionar dicha eventualidad toda vez que su redacción original se halla realizada en dicho idioma.

Segunda.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

DISPOSICIÓN FINAL

La Presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.